

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen jakite maila egiaztatzen duten ziurtagiri eta tituluaren gaineko Foru Dekretua parte hartze publikora zabaldu da

*Ekarpenak Nafarroako Gobernu Irekia atarian egin daitezke apirilaren
3a bitartean*

Osteguna, 2019.eko martxoak 14

Euskararen jakite maila zein tituluk eta ziurtagirik egiaztatzen duten eta hizkuntzaren jakite-maila hori zein kasutan egonen den salbuesita titulu eta ziurtagiri bidez egiaztatu beharretik jasotzen duen Foru Dekretua [Nafarroako Gobernu Irekia atalean argitaratu da](#).

Modu honetara parte hartze publikora zabaldu da [Foru Dekretua](#) hala nahi dutenek ekarpenak egin ditzaten. Ekarpenak apirilaren 3a bitartean egin ahal izango dira euskarabidea@navarra.es helbidearen bitartez.

Foru Dekretu honen bidez, arau bakarrean ezarri nahi da eta modu orokorrean zer titulu eta ziurtagirik egiaztatzen duten euskararen jakite-maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan. Gainera, euskaraz egindako ikasketa ofizialengatik titulu eta ziurtagiri bidez hizkuntzaren ezagutza egiaztatzearen salbuespenak ere jaso ditu Dekretuak.

Foru Dekretuak zehazten denez salbuespenak kontuan hartuko dira titulu edo ziurtagiriak betebeharrak gisa eskatu edo merezimendu gisa baloratzen direnean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioetan sartzeko deialdietan eta lanpostuak lehiaketa bidez betetzerakoan.